

2007/2008 IKASTURTEKO ESPERIENTZIA:

KONTSUMO IRAUNKORRA PROIEKTUA

ARRASATEKO
ESKOLAKO

agenda 21



KONTSUMO IRAUNKORRA, ikasturte honetako proiektua.


Eskolako Agenda 21 proiektuaren hasieran (2003an) ikastetxe guztiek euren zentroetako diagnostikoa egin zuten ingurumen arazoak detektatzeko eta aukeratzeko hurrengo urteetan landuko zituzten gaiak. Lehendabiziko hiru urtetan zaborra, ura eta energia landu ziren eta laugarren ikasturtean hiru gai horiek berriz hartzea erabaki zuten.

Aurten Kontsumo iraunkorra izan da aukeratua. Eskoriatza eta Aretxabaletan ere gauza bera egin dute.

Ikasleek egindako lana

Eskolako Agenda 21aren bitartez Arrasatek jasangarritasunaren bidean aurrera egin dezan saiatzeko ari dira ikasle hauek, euren esku dagoena egiten saiaturaz, hau da, hartutako konpromisoak betetzen saiaturaz.

Kurtsu honetan Kontsumo iraunkorra landu dugu eta asko izan dira denboraldi honetan egindako lanak eta aktibitateak, bai gure zentroetan bai herriko hainbat txokotan, baina zuek ideia bat egiteko ondoren zerrendatzen diren jarduerak adibide gisa azaltzen ditugu:



- Lehenengo eta behin Udal Ingurumen Eskolak bultzatuta kontsumo ohiturei buruzko galdetegia egin genuen Arrasateko kaleetan zein etxeetan. Gero gelaka aztertu eta ondorioak atera genituen.
- Herriko diagnostikoa egin genuen eta Arrasaten dauden denda mota desberdinak ere aztertu genituen, azoka barne.
- Gabonetan kontsumo gehiegikeria hausnartu, aztertu eta eztabaidatu genuen.
- Munduko herrialdeetako familiek kontsumitzeko modu desberdinak aztertu ditugu.
- Eskolako materialaren erabilera aztertu genuen: papera, plastikoa, tonerra, etabar. Paparen kontsumoa murrizteko eta berrerabiltzeko kaxak forratu eta klaseetan banatu ditugu.
- Material birziklatuaz eskulanak egin genituen.
- Kulturatan egon zen "Hondakinak, amesgaiztorik ez" erakusketa bisitatu genuen eta gero gelan ikusitakoari buruzko idazlana egin genuen.
- Donostiara joan ginen eta Kristina enea parkean kontsumo tailerrak egin genituen.
- Talde batzuk Donostiako Emausera joan dira.
- Arrasateko udalak duen web orrian sartu gara eta materialea trukatzeko sistema erabili dugu.
- Kontsumoari buruzko publizitatea landu genuen prentsa tailerran eta tailer horretan kurtsu bukaeran Eskolako Agenda 21ean egindako ekintza guztiak aterako ditugu.
- Kontsumoaren gaia aztertu dugunean konturatu gara arazo asko agertzen direla (hondakinekin erlazionatutakoak, herriko bizimoduarekin erlazionatutakoak, etabar) eta denok egin genezakeela zerbait hori guztia konpontzeko.

Gaiak nola landu diren IKASTETXEETAN... Gaiak nola landu diren HERRIAN.



Kontsumo iraunkoraren inguruan ikasleek egindako konklusio, proposamen eta konpromisuak

1.850 ikasle protagonista

Maiatzaren hasieran udalean zegoen egoera bereziagatik kurtso honetan ez da Pleno berezirik ospatu eta ekitaldi horretan neska-mutilek udal-ordezkariei egiten zizkieten eskaerak eskutitz baten bitartez egin dute aurren.

Aurrerantzean Kontsumo iraunkorra gaiaren inguruan ateratako konklusioak, egindako proposamenak eta hartutako konpromisoak agertzen dira:

Orain aurkeztuko dizkizuegun ondorio, proposamen eta konpromisoak egiten ikasle guztiok parte hartu dugu. Lehendabizi ikasgela bakoitzean adostu ditugu, gero ikastetxe bakoitzeko ikasgeletako ordezkarien arteko batzarrean adostu ditugu eta amaitzeko hemen aurkeztuko dizkizuegunak aipatutako ikastetxe guztietako ordezkarien arteko batzarrean adostu ditugu.

Dokumentu honetan dituzuen proposamen eta konpromisoekin Arrasateko bizi kalitatea hobetu nahi dugu, hau da, Arrasate hobeto bat lortzen lagundu nahi dugu.

Arrasateko kaleetan inkestak egin ditugunean konturatu gara erdiguneko dendetan erosketak egitea abantailak dituela eta aldi berean mantendu eta bultzatu behar ditugula, guztiok ez badugu bukatu nahi zentro komertzial erraldoietan, kontsumoaren hatzaparretan murgilduta.

Erdiguneko dendetan erostearen abantailak asko dira:

- Dendak etxetik gertu dauzkagu.
- Bezero eta dendarien artean harreman beroagoa eta gertukoagoa izaten da, laguntza eskaintzen digute.
- Herriko kaleetan jende gehiago ikusten da, horrela herriko plazak eta inguruko kaleetan jende mugimendua somatzen da eta kafetegi, gozotegi, taberna eta terrazetan paradaxo bat egiteko astia har daiteke. Hemen esan behar dugu aurreko urteko "Kaleak Bizirik" kanpaina positibotzat jotzen dugula, jendeak bertako dendetan erosten duelako, beraz, kalean jende gehiago ibiliko da.
- Merkataritxi txikiak produktuen kalitatea gehiago zaintzen dute: produktuak freskoagoak dira, fidegariagoak dira eta bildukin gutxiagoarekin entregatzen dizkigute.



Aipatutako azterketa gure herriko denda ezberdinetan egin ondoren,
proposamen batzuk egitera ausartu gara:



1 Proposamena:

Erdiguneko dendetan erostearen abantailak ikusita eta espazio hauetan erosteko baldintzak hobetzeko ondo egongo litzateke urbanoa maiztasun gehiagorekin pasatzea eta erosketako tikea erakustera koan biletan deskontua edukitzea.

2 Proposamena:

Bestetik dendetan banatzen diren poltsak plastikozkoak izan ordez biodegradagarriak izatea. Udalak telazko poltsak herritarren artean berriz banatzea ondo legoke.

Gure aldetik prest gaude hainbat konpromiso hartzeko: herriko denda txitietan erosiko dugu eta zentro komertzialetara gutxiago joaten saiatuko gara.

Zentro komertzial eta hipermerkatuekin, sarritan ahaztu egiten dugu Euskal Herriko baserrietako hortuek kalitate goreneko produktuak eskaintzen dizkigutela. Euskal Herriko baserrietako produktuak, martxa honetan jarraituz gero, arriskuan gaude gure aiton-amonon oroimenean soilik geratzeko.

Geure baserrietako nekazaritzako lurraldeak industrialde, urbanizazio eta errepideak okupatzen dituzte.

Baserriko nekazaritzako produktuak ezagutzera eman behar ditugu. Baditugu geletan zenbait ikaskide baserriko janaririk probatu ez dutenik eta baserriarekin inolako harremanik ez dutenik ere. Beste batzuk argi eta garbi esaten dute fruta eta barazkiek duten zapoak (oso goxoak dirá) eta ez dutela zerikusirik edozein supermerkatuan erositako fruta, barazki edo beste janariren batekin. Konklusio horrekin loturik hainbat proposamen egiten ditugu.

3 Proposamena:

Herriko autobusetan baserriko produktuen publizitatea jartzeko laguntza ematea.

4 Proposamena:

Asteazken arratsaldetan edota beste edozein arratsaldetan azoka arratsaldez zabalik egotea, jendeak bertako produktuak erosteko aukera izateko.

5 Proposamena:

Produktu ekologikoak potentziatu, ezagutarazi eta nekazal produktu ekologikoen feria gehiago antolatu, adibidez auzoetako jaietan, Santamasak, San Juanak...

6 Proposamena:

Arrasateko baserriko nekazariei beren produktuak, gazta, barazkiak, fruta, ogia,... aukera eman plazan, dendetan, saltzeko eta dirulaguntzak eman gure inguruko paisaiatik desagertu ez daitezen.

7 Proposamena:

Produktu ekologikoak ekoizten dituzten baserriei lagundu.

8 Proposamena:

Baserritarrak merkaturako plazara jeisten direnean aparkatzeko araoak izaten dituzte, beraz, lagundu beharko zaie.

Guk puntu honetan konpromisua hartzen dugu gurasoekin produktu ekologikoek gure osasunean duten onuraz hitzegiteko.

Aisialdian askotan ez dakigu ondo zer egin eta kontsumismoan jausten gara. Arazo horren aurrean kirola egitea irtenbide bat da. Gure bizitzarako beharrezkoa dela aipatzen da egunero, baina kirola praktikatzeko mugak jartzen badira, adibidez ordaintzea, batzuek gustokoak duten kirola ezin izango dute praktikatu. Patinetearekin patinatzeaz (skate) hitz egiten ari gara.

Zarugalden dagoen parkean patinatzeko "U" toki berreraikitzea proposatzen dugu. Egia da, orain polikiroldegian, patinatzeko pista berria jarri dutela, baina ordaindu behar da eta herritik urrun dago. Bestalde Biteri plaza inguruetan gazte asko ibiltzen da patinatzen (skate egiten) eta handik paseatzen eta lasai dabilzatenak kexatu egiten dira gazteak edozein tokitik eta edonola ibiltzen direlako. Egiten dugun proposamena hauxe da:

9 Proposamena:

Kirol hau (skate) praktikatzeko patinatzeko pista "U" dohain nahi dugu eta herri barruan egotea.

Proiektu bukaerako Erakusketa

✓ *Noiz:* irailaren 22tik urriaren 3ra bitartean ikusgai egon da.

Harresi aretoan izan dugu ikusgai ikasleek urtean sortutako hainbat materiale: tresnak, hormirudiak, argazkiak, galdetegiak,...

Erakusketa horrekin batera beste bat izan dugu: Tokiko Agenda 21an murgilduz erakusketa. Ikasleak erakusketatik pasatu dira eta hezitzaile batek bertan zegoenari buruzko azalpenak eman ditu. Nahiz eta "Iraunkortasuna, garapen iraunkorra, Agenda 21, tokiko Agenda 21" eta abar, egunero entzuten ari garen hitzak diren, gure esperientziak esaten digu jendeak ez duela oso argi, zertaz ari garen. Hau guztia argi gera dadin antolatu dira erakusketa hauek. Honela ikuspegi orokor batetik abiatuz herriko errealitatera murgilduko gara eta era berean proiektuaren partaideak lanerako motibatuko ditugu.



Kurtso honetako PARTE HARTZAILIAK:

Eskolako Agenda 21 Arrasaten proiektua guztiz zabalik dago; Legazpiko Ingurumen Gela (CEIDA) eta Udalako Ingurumen Eskolak (Arrasateko Udala) zuzentzen dute eta herriko ikastetxeek parte hartu ahal dute.

Aurten aurreko ikasturtean parte hartu duten guztiek jarraitu dute proiektuan: Arizmendi Ikastola (Gazteluondo, Sta Teresa, San Viator Txiki, San Viator Handi eta Ferixalekua,), Mesedeetako Andra Maria Ikastetxea eta Arrasateko Institutua; kurtso honetan berri bat gehitu da: Arrasate Herri Eskola.

Proiektuan ikasleek zein irakasleek hartu dute parte; guztira 1.850 ikasle ari dira garatzen proiektua.

Egileak:



ARRASATEKO UDALA
UDALAKO INGURUMEN ESKOLA



Laguntzaileak:



INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACION DEL TERRITORIO